



Ikasgaiaren programa

GORPUTZ HEZKUNTZA

0. ZER DA DOKUMENTU HAU?

Dokumentu honetan Gorputz Hezkuntzako ikasgaiaren urteko plangintza azaltzen da. Bertan ikus daitezke:

1. *Ikasgaiaren bidez lortu nahi diren HELBURUAK*
2. *Ikasturtean zehar landuko diren EDUKIAK eta eduki bakoitza ikasturteko zein momentutan landuko den.*
3. *Ikasgaia lantzeko erabiliko den METODOLOGIA, hau da, ikasleek jakintzak eskuratu, praktikan jarri eta integratzeko erabiliko den modua..*
4. *Ikaslearen lana eta jarrera nola EBALUATUKO den, hau da, irakasleak nola baloratuko duen ikasleak bere jakintzak eta konpetentziak jaso dituela.*
5. *Ikaslearen nota eraikitzeko KALIFIKAZIO SISTEMA, hau da, ikasturtean zehar ikasle bakoitzaren notanola eraikiko den (hitzorduak eta jarduerak).*

Ikasgaiaren nondik norako nagusiak jasotzen dituen dokumentua da hau, beraz. Ikaslearen lana bikaina izateko bidea zein den azaltzen da bertan. Ikaslearen **betebeharra** da, ondorioz, programazio hau ezagutzea eta bertan azaltzen denaren arabera lan egitea.

Era berean, ikasle moduan zuen **eskubideak** ezagutzeko eta ikasturtean zehar horren arabera nota on bat eraikitzen joateko aukerak baliatzeko jarraibideak topatuko dituzue.

Garrantzitsua da kontuan hartzea, emaitza bikainak **eguneroko lanaren** bidez ateratzen direla. Nota hobetzen joateko aukera ziurtatuta daukazue ebaluazio guztietan, baina era berean, egunerokoan **jarrera egokia** izatea, **ekina izatea**, **kritikotasunez eta autonomiaz jokatzea**, eta ahal den heinean, **ikasgaiaz disfrutatzea** ezinbesteko bidelagunak izango dira ikasturtea arrakastaz amaitzeko.

Beraz, ikasgaiaren egitura eta funtzionamenduaren inguruan izan ditzakezun **zalantzen erantzun nagusiak**

dokumentu honetan aurkituko dituzu.

1. IKASGAIAREN HELBURUAK

H1. Jarduera fisikoa erregulartasunez praktikatzeak garapen pertsonal eta sozialerako dakartzan onurak ezagutu eta estimatzea, osasuna eta bizi-kalitatea hobetzeko.

H2. Ikasleen gaitasun fisikoak garatuz eta haien trebetasun espezifikoak hobetuz, haien errendimenduahanditzea osasunaren hobekuntzaren adierazpen gisa, eta erantzukizuneko jarrera hartzea.

H3. Jarduera fisiko osasungarriko programa bat planifikatu eta martxan jartzea hasierako egoeraren ebaluaziotik abiatuta, ikasleen behar pertsonalei erantzun diezaien eta aisialdiaz nahiz denbora libreazera aktiboan gozatzeko bidea izan dadin.

H4. Kiroletako motrizitate-egoerak bizitzea, erabakiei lehentasuna emanez eta aurreko etapan ikasitakotaktika eta teknika elementuak aplikatuz.

H5. Jarduera fisikoak eta kirolak ingurune naturalean egitea, ingurunea kontserbatzen eta hobetzen lagunduko duten jarrerekin.

H6. Jarduera fisikoa eta, berdin, erlaxatzeko, arnasteko eta jarrera egokitzeko teknikak era autonomoan erabili eta balioestea, norbera ezagutzeko bide gisa, eta eguneroko bizitzan sortzen diren desorekak nahiz tentsioak murrizteko baliabide gisa.

H7. Euskal Herrian errotutako jolas-tradizioak eta jarduera fisikoak nahiz kirolak identifikatu, estimatu eta praktikatzea, eta, informazio-iturrietan bilatuz, jolasen, dantzen eta herri-kirolen aniztasuna aztertzea, hala, norberaren balio kulturalen errespetua lortzeko.

H8. Talde lanean aritzea, norberak bere ardurak hartuz denon intereseko helburua lortzeko.

2. IKASGAIAREN EDUKIAK

1. BLOKEA> Oinarrizko gaitasun fisikoak

UD1>

Oinarrizko gaitasun fisikoen neurketak eta oinarri teorikoa

UD2>

Indarra

UD3>

Erresistentzia

UD4>

Abiadura

UD5>

Malgutasuna

2. BLOKEA> Gorputz adierazpena

Gorputz Hezkuntza 2024-2025

Ikasturteko programa

UD6 > Dantza, erlaxazio zein gorputz adierazpeneko saioaren prestaketa eta aurkezpena

3. BLOKEA> **Joko jolas tradizionalak**

UD7 > Joko-jolas tradizionalen ezagupena, azterketa eta aurkezpena

4. BLOKEA> **Natur jarduerak**

UD8 > Natur jarduera desberdinak bizi eta diseinatu

5. BLOKEA> **Kirol alternatiboak**

UD9 > Munduko kirol alternatiboak

Ikasgai honetako edukien gutxi gora beherako banaketa hurrengoa da:

EDUKIEN DENBORALIZAZIOA	1	2	3	4	5	6	7	8	9
1. Ebaluaketa	■	■	■	■	■				
2. Ebaluaketa						■	■		
3. Ebaluaketa								■	■

3. IKASGAIAREN METODOLOGIA

Lanerako metodologiari dagokionez, hiru eratako lanketak izango

dira nagusiki: JAKINTZAK ESKURATZEKO SAIOAK

Irakasleak gidatutako saioak izango dira eta bertan edukiak, kontzeptuak landuko dira. Saio hauetarako, ikasleen parte hartze aktiboa ere beharrezkoa izango da.

INTEGRAZIO JARDUERAK

Talde kooperatiboetan gauzatutako ariketa teoriko-praktikoak izango dira. Ikasle taldeek aurkeztutako egoera ezberdinei aurre egin beharko diete, unean uneko baldintzei erantzunez, eta lan oso bat burutuz.

4. EBALUAZIOA

Ikasleak ebaluatzen eta ikasgaiaren helburuak lortu direla ziurtatzeko bi ebaluazio mota nagusi

egongo dira: GELAKO ZEREGINAK eta INTEGRAZIO JARDUERAK

- Edukiak barneratu izana.
- Egoerari aurre egitean koherentzia, pertinentzia eta edukien erabilera egokia.
- Prozesua

Gorputz Hezkuntza 2024-2025
Ikasturteko programa

Zeregin bakoitzaren hasieran ebaluazio irizpide zehatzak

jakinaraziko dira. Integrazio jardueren bitartez, edukiak

osatzeko aukera egongo da.

GELAKO JARDUNA

Gelako jarduna ondorengo irizpideen arabera ebaluatuko da:

1. Euskara: Euskaraz bizitzeko eta hitz egiteko hautua egitea.
2. Parte hartzea
 - a. Jarrera pro-aktiboa izatea: Ikasteko nahia eta gogoia. Jarrera positiboa izatea, ulertzen ez dena galdetuz. Mugikorrik ez izatea, inguruko ikaskideak ez oztopatzea...
 - b. Errespetuz parte hartzea: Neurritz eta errespetuz parte hartzea eta azalpenak ez etetea.
 - c. Entzuten jakitea. Irakaslearen azalpenak, ikaskideen ekarpenak arretaz entzutea, gorputzlengoaia eta jarrera zainduz.
3. Elkarlana eta elkarbizitza
 - a. Barne arautegiko eta elkarbizitzako arauak errespetatzea.
 - b. Ingurukoak laguntzea.
4. Autonomia
 - a. Asistentzia: Ikasgaiari justifikatu gabeko 5 hutsegite baino gutxiago behar dira lanak entregatuegin ahal izateko. >5 hutsegiterekin zuzenean BERRESKURAPENA egin beharko da.
 - b. Ikasle bakoitzaren esku geratzen da hutsegiteen kontua eramatea. Ez da hutsegiteen gaineko abisurik emango.
 - c. Puntualtasuna: Irakaslea izango da klasean azkena sartzen. Berandu iristea hutsegite erdi gisakonputatuko da.
 - d. Lana: Denboraren probetxua, materiala ekartzea, ariketak ganoraz eta txukun egitea, etxeko lanak egitea...
 - e. Lanak epe barruan entregatzea: Epez kanpo entregatzen diren lanak ez dira jasoko, pisuzko justifikaziorik ezean.
5. Hezkidetza: Ikaskideekiko eta irakaslearekiko errespetua.

KALIFIKAZIO-SISTEMA

HIRUHILEKO BAKOITZAREN KALIFIKAZIOA

Hiruhileko guztietan ikaslearen nota kalkulatzeko sistema hurrengoa izango da:

EBALUAZIO BAKOITZEKO KALIFIKAZIOA		
ATALA	BALIOA (%)	BALDINTZAK
Gelako jarduerak eta integrazio jarduerak	80	Gainditu
Gelako jarrera	20	

Hiruhileko bakoitzeko ebaluazioa gainditzeko ondorengo baldintza GUZTIAK bete beharko dira:

- BALDINTZA:** Atal guztietan gutxienez 5-era iritea beharrezkoa izango da atal desberdinen arteko batzbestekoa egiteko.
Baldintza hau bete ezean, ikasgaia ez dago gaindituta eta berreskurapena egin beharko da, gainditugabeko (5etik behera) atal guztiena.
- BALDINTZA:** Aurreko baldintzak bete arren, arloko kompetentzia guztiak gainditzea beharrezkoa izangoda, nota globaletik gutxienez 5 puntu aterata.
Baldintza hau bete ezean, gainditu gabeko atalak (5etik behera) berreskuratu beharko dira.

OHIKO DEIALDIAREN KALIFIKAZIOA

Ohiko deialdian atalen bat gainditu gabe duten ikasleek errekonferentzia lan bat egin beharko dute.

EZ-OHIKO DEIALDIA

Ez-ohiko deialdian ikasgaia atalka gainditzeko aukera egongo da, ohiko deialdiaren prozedura berdina jarraituz. Ohiko deialdian atalen bat gainditu gabe duten ikasleek errekonferentzia azterketa bat egin beharko dute.

IKASTURTE AMAIERAKO KALIFIKAZIOA

Behin hiruhileko guztiak gaindituta, ikasturteko nota orokorra honela osatuko da:

IKASTURTEKO KALIFIKAZIOA	
ATALA	BALIOA%
1. Hiruhilekoa	33,33
2. Hiruhilekoa	33,33
3. Hiruhilekoa	33,33
IKASGAIKO NOTA	100

NOTA IGOERA

- **Ikasturteko nota orokorra:** Ikasgaia gaindituta dutenek, ohiko deialdian nota igotzeko aukera izango dute:
 - Integrazio jarduera baten bitartez.

haziak > JARRERA PARTE-HARTZAILEA BULTZATZEKO SISTEMA

Ikasleak bere ibilbide akademikoa indartzen joateko jarrera bultzatzeko sistema da haziena. Helburua da ikasleek urtean zehar ikastolatik bertatik antolatutako zein kanpoko ekintzetan parte hartzea bultzatzea, bere ikasketa prozesua aberasteko balio duten esperientziak biltzen joateko.

Hitzaldi, debate edo mahai inguruetara joanez, erakusketak bisitatuz, antzerki edo dantza emanaldietara agertuz, solasaldi zientifikoetan parte hartuz... edo, oro har, ikaslearen irteera perfila aberastu dezaketen edozein hitzordu baliatzera bultzatzeko sistema da, beraz.

Horrez gain, jarrera parte hartzaile honek eragina izan dezake ikasturteko emaitzetan. Ikasturtean zehar, ekintza hauetan parte hartu izana erakutsiz gero, hainbat ikasgaitako notak hobetzen joan daiteke.

Horretarako ikasleak, txantiloiz/zeregin berezia bete eta entregatu beharko du:

- Ebaluazio bakoitzeko, gehienez 4 ekintza aurkeztu daitezke hainbat ikasgaitan banatuta.
- Gehienez ere, ikasgai bakoitzaren barruan 2 ekintza aurkeztu ahal izango dira ikasturtean zehar.
- Gehienez ere, 10 ekintza aurkeztu ahal izango dira ikasturtean zehar.

Hazien bitartez lortutako nota igoerak ebaluazio amaieran aplikatuko dira, ikaslearen ebaluazio horretako batezbesteko orokorra kalkulatu ondoren (eta beti ere, ebaluazioa gaindituta dagoenean).

Aurkeztutako ekintzen bitartez, ikasleak bere ikasturteko batezbesteko orokorra 1 punturaino hobetu ahal izango du, ikasgaiaren arabera, horretarako dagokion ebaluazioan behar besteko pisua hartuz.

Haziak aurkezteko txantiloia/zeregina Classroom-en eskuragarri egongo da.